

Eusebio Larrañaga Unamuno
Bergara, Gipuzkoa (1912-2010)

Aurkibidea

Biografia

Amillagako ferratzaile ohia. 1912an jaio zen Basalgoko Oianguren baserrian. 14 urterekin hasi zen ofizioa ikasten Osintxun Damaso Gallastegirekin; eta horren ondoren, Amillaga auzunean jarri zuen sutegia. Errementari eta ferratzaile lanak egiten zituen. Ofizioaren gainbeherarekin galdaragintzan hasi zen lanean Luzio Gallastegirekin, aipatutako Damasoren semea zenarekin.

Zintak

BER-003

- **Proiektua:** Burdina: errementariak eta perratzaileak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arana, Iñaki

- **Emalea:** Arana, Iñaki

Pasarteak

1. Perratzaileak Bergara inguruan

- **Erref:** BER-003/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratzaile eta errementari lana. Orain dela 40-50 urte Bergaran 300 bat pare idi zeuden. Inguruan zeuden perratzaileak zeintzuk ziren.

Transkripzioa

- Zuek perratzen eitten ziñuen bakarrik edo...?
- Guk eitten giñuan perratzen ta basarriko erreminttia, ba, atxurra edo... basarrixan usatzen zan erreminttia arreglau, ta ein be bai barrixa batzuk eta hola. Errementari, basarriko errementari; horixe zan gure izetia. Ta hori oin zela gastau ein dan... Bueno, basarrixaz ez da gastau dana, baiña ganauak perratzia ta hori ya desaparegiduta dao. Lehen Bergaran ganau asko zeuan. Egongo zian... oin berrogeta zortzi, bederatzi, hamar urte igual egongo zian Bergaran hirurehun bat pare idi. Ta perratzailliak be zeren Osintxun, gero ni, Angiozarren, Barrenkalekua... ta horrek. Ta horren aurretik gehixao be bai.
- Zubixaurren ez zeuan?
- Haura nik ez naben ezautu. Zubixaurkua, antxinakua. Bai, Zubixaurren bazan lehenao, baiña nik ez naben ezautu Zubixaurkorik.
- Han lehenao, e?.
- Bai, lehenao.
- Zubixaurko jatorrixa da Azkarate. E...
- Alaba bat bizi da hortxe [Camacho]-neko goixan, ez? Ez zan Bittor Gallastegin...?
- Egon, egon... Murgoitio, izena zela da?
- Bai, Vicente.
- Ez, andria...
- Pilar.
- Murgoitio... Pilarren gizona...
- Bai, Damian, Damian.
- Damian.
- Nik Damian ezautu neban zerrajero.
- Damienek ez zeban perratzen asko ingo, baiña Damienek aitta ta zien perratzailliak, perratzailliak eta herreruak, errementariak zien.
- Horrek zien Zubaixaurkuak.
- Zubaixaurkuak. Baiña hori antxiñako denporia da, antxiñako kontua. Nik ez nittuan ezautu horrek lanian, Zubixaurren. Nik ezautu nittuanak hori, Bixente Uriarte, baiña horrek perratzen eitten zeban bakarrik, basarriko zerik ez zeban eitten, basarriko lanik ez zeban eitten, perratzen. Eta gero Angiozarren Joxe Martin Arrieta, Angiozarkua. Harek be eitten zeban perratzen eta basarriko asuntua, baiña haura desaparegiduta dao.

Osintxukua be desapareziduta dao, gu be bai...

- Arrieta hori bizi da edo...?

- Ez, ez, hil zan. Haren semen bat biziko da, Donostian edo zan. Haura dedikatzen zan balkoiak-eta eittera ta hola, ta haura biziko da oinddiok.

2. Zenbat urterekin ikasi zuen ogibidea eta noiz hasi zen bere kontura lanean

- **Erref:** BER-003/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Eusebio 14 urterekin hasi zen Osintxun beharrean. Perratokia 1934 inguruan ipini zuen Zapatarikonean.

Transkripzioa

Noiz sortu zifñuen Zapatarikuan perratokixa? Ori ba el año treintai... Ori sortuko zan treintaikuatruan, ogetamalauan. Eta hor bazeuan beste bat be, Mujika Mugertzakua. Arek errero itten zeban, gupillak eta burdixendako erroberak... Eta llantak burdixendako, ezta? Baitta, ori eitten zeban. Zu ez za gogoratzen gure aittak eta aittajunak, Unzuetanekuak, eitten zebeñian errementari? Zuen aittaitta ezautu naban nik, bai; aitta be bai, aitta asko. Baiña orrek errementari itten zebeñ bakarrik, perratzen ez zebeñ itten.

3. Errementaria eta perratzailea

- **Erref:** BER-003/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea

Laburpena:

Baserriko tresnak konpondu eta berriak egin. Gerra sasoian, perratokia itxita egon zen. Aspaldi Bergaran 400 baserri baino gehiago egongo zirela uste du. Perratokiak eta perratzaileak gaur egun.

Transkripzioa

Eta zuek bai perratzen eta bai errementari? Bai, basarriko asuntuak.

4. Abereak perratzea

- **Erref:** BER-003/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Lanerako erabiltzen ziren animalia guztiak perratzen ziren: idiak, behiak... Zaldiak eta astoak baita ere.

Transkripzioa

- Eta idixak bakarrik...?
- Behixak be bai.
- Behixak be perrau eitten ziñuzten?
- Behixak be bai. Segun... danak ez, baiña lanian zebizen ganauak dana perratzen zan. Batzuk perratzen zian... Ganauak kaskua dauka, baiña bi bihetz dauka hanka bakoitzian; hemen bihetz bakoitzian perra bana bakarrik; beste batzuri ipintzen jakuen sei, zortzi be bai, lana fuerte eitten zebe idixeri eta. Zortzi be ipintzen jakuen, zortzi perra.
- Bihetz bakutxian?
- Bai, bihetz bakoitzian perra bat. Kaskua esaten jako, eta kasko bakoitzak bi bihetz eukitzen dittu.
- Eta perratze horrek ze efekto eitten zotsan lanerako? Zeaittik eitten zan hori?
- Hori, ba, norberak zapatak jartzia moduan.
- Oseake lokatza artian horrek efektua eitten zeban?
- Gastau ez dein, kaskua gastau ez dein. Txapia izeten da perria, txapa... lau bat milimetrokua edo, bostekua edo...ipintzen da ta josi giltziakin .
- Orduan zaldixeri eta astueri be ingo jatzuen, orduan...
- Baitta. Danei. Bueno, danei... astuak batzuk, lan gitxi eitten dabenak ez dabe biher izaten, baiña beste batzuk, ba, bai ta... Zaldixak, berriz, lehen burdiñazkuak izeten zien, ta gero gomazkuak eitten zien. Oin zaldirik be ez dao, hemen behintzat.
- Karreretarako-eta perrauko dittue, ezta?
- Bai, horrek perraut dare.
- Bai, ta idi-probetarako ta...
- Bai, idi-probetarako ta.

5. Perratzeke erabiltzen ziren tresnak; perratokia

- **Erref:** BER-003/006
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Perratzeke prozesua nolakoa zen; erabiltzen ziren tresnak. Perratokia zelakoa zen.

Transkripzioa

- Kontauko dozu pixkat zela zan? Zelan eitten ziñuen dana?
- Zela eitten ziñuen, zela zan. Hori. Honek ez dabe ikusi sekula; nik ikusi dot. Zela lotu ganaua eta aber...

- Ganaua jasotzen da... Aurrian eruaten dau korrea bat ta atzian tabla bat, atze partian, ta jasotzen da gora.

- Poleiakin...

- Eskuakin be bai ta poleakin. Guk poleakin [daukau] ipinitta.

- Nik poleakin zuenian ikusitta.

- Ta gero hartzen dia hankak, gora, sokiakin lotu ta han nahi dana eitten jako ganauai.

- Eske behetik datoz lau hanka...

- Bai, lau zutiko die.

- Ta haretara lotzen jakue.

- Ze izen dauka horrek?

- Perratokixa.

- Bai, perratokixa, baiña izen, hola... ixotzeko tabla horrek-eta izenen bat zeukan berezixa?

- Ez, armazoi bat izaten da ta... Perratokixa, nik beste izenik eztakit, perratokixa. Gero pujamante esaten jako, halako katxarro batekin...

- Zela?

- Pujamantia. Azpixa leundu eitten da puskat, kaskua, batzuri hazi eitten jakue eta moztu, leundu puskat, ta gero perria asentau, asentau biher izeten da harek be iñun miñik ez deixen emon edo, ta gero josi eitten da, bost giltze, sei be bai, laukuak be izeten die, lau zulokuak be.

6. Abereak perratzeko erabiltzen zuen teknika

- **Erref:** BER-003/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Perratzailea ona denean animaliak ez du sufritzen. Perratzeko erabiltzen zuen teknika.

Transkripzioa

- Eta ganauak sufridu eitten zeban?

- Ez. Bueno sufritzen dau... kaskuak eukitzen dau holako barra bat, atzazkala edo esaten jakona, ta barruan okelia dauka, ta han giltzia sartu bihar da, okelia ikutu barik. Horixe da perratzailliak daukan meritua.

- Teknikia, ez?

- Bai, teknikia; zuk eusten badozu [barru samarretik], ikutzen [jatzu] odolian eta gero eitten da errandu, hankia eitten da mindd. Ta hori gaizki dao, josi biher da gogorretik.

- Ganaua dominatzeko, surretik edo [...] ... oratzeko?

- Ez, ez, ez. Uztarrixa ipintzen jakon buruan eta gero lotu eitten da gora. Burua be bai ta hankak be bai, lotu eitten dia.

- Eta uztarrixa ipintzen jatzuen jasotzeko?

- Batzuk uztarrixa ta beste batzuk... Guk uztarrixakin eitten giñuan, beste batzuk badare uztarri barik, beste katxarro bat adarretan lotu ta eitten dabenak, baiña uztarrixa da hobia, hobeto lotzen da ganaua.

- Uztarrixa... bi uztartzeko uztarri bi edo espeziala?

- Ez, ez, ez, bakarra. Uztarri bat.

7. Eskuz egindako perrak; gerora fabriketan egiten hasi ziren

- **Erref:** BER-003/009
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Antzina zaldi eta astoei eskuz egindako perrak ipintzen zitzaizkien. Gero abereendako perrak fabriketan egiten hasi ziren (Mutrikun, Zegaman, Ormaiztegin...). Baserritarrek joaten ziren animaliarekin perratzailearengana.

Transkripzioa

Zuek eitten ziñuzten perrak? Ez, ez. Bo, kaballerixiana bai jenerala; len eskuz eitten zan ori, baiña gero fabrikak zeren; eitten zan baiña ori asko kostatzen zan eta einddakuak egoten die. Nai bozu plantillia bakarrik eta nai bozu akabautakuak. Gu Motrikotik ibiltze giñan, Zegaman be bazeuan eta Ormaiztegin be bai; baiña guk Motrikon, Uribesalgo. Zestuan biltzen zan da eun bat kilo inguruko zesto bat apropos eindda eukitzen zebeu erak. Zeuk eskatzen ziñuan pedidua: ero zesto bat, ero bi, ero zeuk biar ziñuzenak. Baiña aurretik eskuz eitten zan: ebai txapia o zeozer olakua gogorra baldin bazan por ejenplo, jo mailluakin da zabaldu, ta zela-alakua ein. Baiña gero ez, gero fabrikatik. Ori gastauta dao ta. Oin be eingo dia nunbaitten, ezta, baiña Motrikokua zarra zan; ez dakitt Ormaiztegiak eitten daben ero. Da astuan da perria, berriz, etxian eitten zan guk bia giñuana. Zelan konpontzen ziñaten basarritarrekin geratzeko? Basarritarrak erak etortzen zien; ero ganaua errendu ein ddala ero perria bota. Batzutan igual kolia ta urrengo bapez.

8. Abereak perratzearen inguruko hainbat kontu

- **Erref:** BER-003/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Perra berria ipintzea, pta.1 kobratzen zuten; perra zahar bat ezartzea, bi errial. Perra berria noiz ipini behar izaten zitzairen.

Transkripzioa

- Ta faktura estilua edo zeoze egoten zan?
- Ez, hori eskuan pagatzen zan.
- Zenbat kobratzen zan orduan perra paria ipintzia edo?
- Bueno, orduan, perria barrixa ipintzia, pezetia. Perra bakoitza pezetia, barrixa; ta zaharra bi erriel.
- Zaharra be bai jartzen zan, e?

- Bai, uso onekua baldin bazan ba...

- Eta zela etortzen zien ganauak? Perria zenbat denborarako izeten zebe?

- Hori segun kaskua, ganaua bera zelakua dan. Bai, diferentzia haundia egoten da. Porejenplo, atzeko hankak asko bigunauak izeten dia aurrekuak baiño. Igual izengo da materiala, baiña atzekuak bustiak zela egoten dian, enjeneral, aurrekuak sikuan eukitzen dittue ganauak, ta bigunian, ba, bigundu eitten da. Kasko batzuk oso bigunak. Harek, ba, perria lehenao botatzen dau.

- Soltau eitten jakue?

- Bai, bai, ibilixan soltau eitten da. Gero lanian esfuerzua zela ein bihar daben, ba...

- Nola konturatzen zien perria soltau dabela edo?

- Bistan... ikusi eitten da ta! Ikusi eitten da.

- Ibilleran edo...

- Klaro. Ta gero batzuk, ba, min hartzen zebeian, ba, kojo; ta perratokira juan bihar perria ipintzera.

9. Perratzeko erremintak

- **Erref:** BER-003/013
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Perratzeko erabiltzen ziren tresnak. Eginaz ikasten zen lanbidea. Tresnak nondik ekartzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Kontaukozu pixkat ze erremintta erabiltzen ziñuen hor perratzeko? Oseake, lau hitz edo lau gauza zeuzkazuenak...

- Bueno, hor erreminttia... ez da erremintta asko bihar hortarako. Lehen esan dot pujamantia. Guk pujamantia, igual eukiko dau beste izen bat, guk hori esaten gotsan.

- Bueno, baiña hemen Bergarakua bihar dou, hemen esaten zana.

- Kaskua garbitzeko, ezta? Zeindda zepilluakin garbitzen dan bezela egurra, horrekin garbitzen zan.

- Ez ziñuen hola, kallua moduan kentzen?

- Hori... bai.

- Azala, hola, kentzen zotsen.

- Kendu. Eta gero, ba, perria, segun ze tamaiñotakua dan kaskua. Badakizu bistara zuk, lehen esan douna, eiñaz ikesi eitten da hori, erreza da ikesten hori. Gero, ba, haura ein bihar dozu asentau puskat, erdixan ez jao jo bihar behian, bigunian, eskiñako bueltan gogorrian asentau bihar da. Ta gero, ba, josi; bost iltze, bost edo sei, segun.

- Orduan, maillukia erabiliko ziñuen...

- Mailluka txiki bat ta porrikak.

- Zela? Porri...

- Porrikak esaten gotsen guk. Porrikak. Iltzia sartzen danian kanpora ataratzen da, ezta? Ta gero, haura eitten da puntia bueltau gora, ta gero ebai sobria, ta gero eitten da errematxau porrikian kontrara maillukiakin.

- Maillukia, oingo mailluka normala edo...?

- Et, et, et. Ez, mailluka espeziala izeten da, txiki bat.

- Txikixa alde bixetatik?

- Ez, alde batetik, alde batetik. Bai, alde batetik. Ta biher izeten dia hiru, bi-hiru tenaza; tenazak edo porrikak, oin ez dakit izena zela izengo dan be... Ta bat izeten da aldian dakarren perria kentzeko; haura erremintta zahartxuaua, ta giltzia ebaitzeko ta horrek bihar dira fintxuauak, eta gero beste tenaza bat edo porrika batzuk dare sobre-atzazkala mozteko. Horretxek hirurok, osea, lau erremintta die; bost, bost erremintta die.

- Ta tokixa haundixa be ez ziñuen bihar, ez?

- Ez, toki haundixa ez... Ta gero perria asentatzeko, ba, mailluka bat fuertiaua, eta junguria. Perratzeko horretxek.

- Zela esan dozu? Maillukia eta bestia?

- Junguria. "Yunque" edo...

- A! Klaro, junguria, bai. Eske hori guk sekula ez dou entzun euskeraz, ta horreaittik. "Junguria" esaten da?

- Ta beste batzuk "ingudia" edo esaten dotse baitta, baiña "junguria" [da hemen].

- Junguria.

- Bai, "yunque".

- "Yunque". Eske nik hori euskeraz entzuteke neukan ze zan, izena horrena.

- Euskeraz ez da izengo igual hola, baiña...

- Bai, bai, bai, hola izango da!

- Bai, Eibarren behintzat hola esaten dotse. Ni [egun baten] begira egon nitzan Juan San Martiñena, ta Eibarren behintzat "junguria" esaten [dotse], asike... Ta antzera hemen ta Eibarren.

- Bai. Ba, horixe. Oin, ostian errementarixa asuntuan erreminttia zenbat eta gehixao euki ta lan eitteko hobeto.

- Zuek erreminttia gero nundik ekartzen ziñuen?

- Perratzekua? Perratzekua nik lehenengo ekarri nittuanekin akabau neban. Ez da gastatzen hori holan itxuria, kaso ein ezkeru puskat. Bilbotik edo... ferreterixetan hori.

10. Errementariaren lana

- **Erref:** BER-003/015
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Baserriko tresnak egiten zituen. Lanabes hauek fabriketan egiten hasi zirenean galdu zen beraien ogibidea. Errementariaren lan-tresnak. Harri-ikatzarabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Baiña lehelengo, errementari moduan ze eitten ziñuen?

- Lehelengo errementari moduan, ba, aria ta burdiñaria ta horrek dia, basarriko erreminttak; zorroztu, horrek zorroztu ta atxurrak zorroztu ta... Basarriko...

- Zuek ein, horrek... atxurrak eta, zeuek ein ez ziñuzten eitten, ez?

- Horrek Osintxun eitten zian. Bai. Gero hemen nik [ekin netsanian] ez. Osintxun eitten zian atxur hola... txiki batzuk eta. Baiña hori be galdu zan.

Bai, ba... fabriketatik eta gero atxurra ba...

- Eta aizkoria eitten zan?
- Aizkoria eitten zan... Tiburziok eitten zaban aizkoria.
- Horixe ba, nik baten bati ikusitta...
- Eitten zaban, baiña harek be lehenao e, nere akorduan ez, ni baiño lehenaoetik, ni horra etorri baiño lehenaoetik. Gero galtzairutu ta bai eitten zittuan aizkorak, galtzairua ipini. Hori ta bai, baiña aizkorarik ez. Gero aizotza ta horrek, sasixa ebaitzeko ta horrek eta...
- Zela da sasixa ebaitzekua?
- Aizotza esaten gontsan guk, igitixan moduko bat, hola egur partikia sartu ta ebaitzeko, sasixak eta ebaitzeko.
- Ez naiz akordatzen hori zelakua zan. [...] Horrek eitten zittuan...?
- Horrek eitten giñuzen geuk be, baiña gero horrerri laga in gontsan ya.
- Gehixen bat zorroztu-eta, orduan?
- Bai.
- Konpondu edo...
- Bai. Basarriko artikuluan gauza gitxi dao kontatzeko; aria ta burdiñaria ta goldia ta dia basarriko asuntuak; hortik fuera...
- Baiña goldak eta eitten ziñuen zuek?
- ...Oin bai, oin tratoriak eta, osea, diferentia da. Ez, baiña arregluak!
- Arregluak. [Goldiana-ta] ekarriko zebein eindda...
- Bai, eindda ekarri ta gero arreglua.
- Eta hortarako ya gero zeoze berezixa zeukazuen edo...? Junguria lehendik zeukazuen. Ez?
- Bai, bai, junguria bai, lehelengotik. Junguria ta maillukak ta porria ta... Gero suteixa ta... Lehen suteixa izeten zan hauspua, hauspo haundi bat. Gero azaldu zian bentiladorak, eskuakin erainddakuak. Gero elektrikuak...
- Zuek zela hasi ziñaten? Hauspuakin?
- Ez, ez. Osintxun bai, Osintxun hauspua zeuan, baiña ez. Bentiladora, lehelengo eskuakin ereittekua.
- Zelako bentiladora zan? Zelan funzionatzen zeban horrek?
- Eskuakin ereindda, manilliakin. Bentiladora. Haizia. Gero elektrikuak [...], motorrakin.
- Egur-ikatz-ta biharko ziñuezen, ez?
- Egur-ikatz. Eee... Egur-ikatz gitxi, harri-ikatz gehixao e, harri-ikatz bai.
- Nundik eruaten ziñuen hori?
- Hori, ba... karboneruai, guk bihar izeten giñuana. Gitxi gastatzen giñuan [hori]. Karboneruari.
- Gero zaukazuen suteixan onduan aska bat hola urakin, hozteko.
- Bai, urakin aska bat.
- [...]
- Tenazak beruari heltzeko ta, erremintak bihar die errementeritzarako.
- Eta ze erremintta zien horrek?
- Tenazak.
- Tenazak... lehen esan dozu porri... zela esaten jatzen?
- Porrikak edo... Porrikak, baiña harek ebaitzeko, diferentia [die]. Barreri heltzeko-ta tenaza luziak, ta horrek, ba, izeten dia bariauak, segun zeri heldu bihar [dozun] .
- Tamaiño desberdiñak...
- Tamaiñokua bihar.

11. Errementariak lanerako erabiltzen zituen arropak

- **Erref:** BER-003/017

- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Lanerako erabiltzen zituzten arropak.

Transkripzioa

- Eta zuen trajia ta? Ze buzo klase edo ze erabiltzen ziñuen?
 - Bonbatxon batzuk edo... Ta gero suteixan ibiltzeko, ba, narruzko amantal bat edo izaten da. Baiña hori be... oin ez da usatzen hori.
 - Eta gero alpargatak edo... ze?
 - Ahal dana! Ahal dana...
 - Txokoluak be bai, ez?
 - Baitta. Ez, txokolorik ez nik, baiña...
 - Nik leittuta daukat hor, lehengo oletan-ta erabiltzen zittuela alpargatak, hola oso errezak etaratzekuak. Oseake... zeozer, sua edo jausi ezker ozeozer laster etaratzeko, hankia etaratzeko.
 - Oin esijidu [... itxuria], baiña lehen ez zeuan. Zu akordauko zara herrero [bizarrek] eitten zittuan abarketak?
 - Bai...
 - Halakotxe puntapaixak hankan [azpitan].
 - Bai, eta goma puskat azpitan...
 - Kubierto gomiakin eindda.
 - Eta abarkak, Aperribaiñian eitten zittuenak...
 - Baitta.
 - Kubierteekin, sandaliak moduan, baiña dana gomiakin. Abarkak eitten zittuen. Aperribaiñekua, taillarra zeukan horrena.

12. Aurreko errementarien lanak

- **Erref:** BER-003/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Lan-baldintzak. Eusebio mutil gaztea zenean oraindik ere eskopeta kanoiak eskuz egiten ziren. Bergaran Nazario errementaria ezaguna zen.

Transkripzioa

Beste mailluka klaseren bat? Bai, izaten die tajadera esate jakonak, burdiña ebaitzeko: holako katxarro bat manguakin, zorrotuta, jo goittik eta ebaitzeko, burdiña ebaitzeko. Ta geo izaten die asentadorak, eta gauza asko izaten die erreruak bihar izeteittuanak. Ta geo, lehen lehenau, nik asko ez, baiña Osintxun be eitten zan eskopeta-kañoiak, barria luzia izaten zan, da hori, atzeko zeroi, suteixan berotu, jo, da haura koskorra etara ta horrek eskuz eitten zien lehenau. Eta zuek errementarixak herriko taillerretarako lanik eitten ziñuen, gauzak konpondu, piezak-eta? Bai, bai,

oiñ azkenaldera bai, baiña Bergan lehen ez zeuan, e. Nazario zan lehen Bergan hortara dedikatzen zana, Nazario errementarixa; dedikatzen zan kaldererixa asuntora gehixau. Geo gu ekin giñan, bixok juntau giñanian; da geo ez zeuan Bergan artian, da oin mordua dae Bergan.

13. Gurdiendako burdinazko gurpilak

- **Erref:** BER-003/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Gomazko gurpilak; gurdiendako burdinazko gurpilak zelan egiten zituzten.

Transkripzioa

Burdixen erruberak eta eitten ziñuzten? Bai, orrek gomazkuak eitte giñuzen, bai. Lenengotako gomazkuak guk eitte giñuzen, bai. Baiña aurretik burdiñazkuak zien llantak. Bai, llantak burdiñazkuak. Horrek Tiburziok eitten zittuan, ta zure aittajunak-eta gehixau.

14. Bergara inguruko perratzaileak

- **Erref:** BER-003/021
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:35:26. **Bukatu:** 00:36:23

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Bergara inguruko perratzaileak. Bergaran bera izan da azkena.

15. Perratzaile eta errementari

- **Erref:** BER-003/023
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:39:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Lanaren arabera irabazten zen, eta orduan sasoian negu aldera lan gutxi egoten zen. Perratzaile eta errementari lanak biak batera egin behar zerbait ateratzeko.

16. Bergaratik Osintxura lanera oinez

- **Erref:** BER-003/025
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:39:57. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Baserritik oinez joaten zen Osintxura. Kuadrilla handiak joaten ziren bizikletan Bergaratik Plazentziara lanera.</p>

17. Bergarako emakumea lan-munduan

- **Erref:** BER-003/026
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:42:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altxairugintza

Laburpena:

Bergaran, 'Textil' eta 'Altos Hornos' ziren lantegi handienak. Gizonezkoak tindategian eta emakumezkoak oihalgintzan lan egiten zuten batez ere. Bergarako emakumeak lan-munduan.

18. Bergara inguruko perratzaileen arteko harremanak

- **Erref:** BER-003/029
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:45:40. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Antzinan inguruko herrietako perratzaileen artean harreman estuak izaten zituzten; azkenengo sasoian ordea, prezioak erabakitzekeo bakarrik elkartzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com